# *Ttipi Ttapa* aldizkarian agertu lekukotasunak (Astigarraga, Behasteguy, Harisgain, Chipi) eta argazkiak

▼▼▼▼▼▼

Michel **M**endiboure*
Joset **O**xandabaratz**

*Ttipi ttapan agertu lau lekukotasunek azpimarratzen dute denentzat debaldetan egin gerla izan dela, bakarrik zangobeltz aberatsen abantailetan. Hortarako, usu, maintien de l'ordre egin behar zen: karrikak, baserriak edo petrolo putzuak zainduz. Bakar batek zakien soldadu altxatuak ez zirela galdezketa bortitzen egitera hertsatuak. Ekintza horiek engaiatueri tokatzen zirela. Bi lekukok diote Algerian beren eginbidea bete dutela (gerlari ohien zuzendari eta bandera eremaile).*

*Giltza-Hitzak: Gerla. Zikina. Debalde. Hiltze. Eginbide. Medailak.*

*Les quatre témoignages parus dans Ttipi ttapa insistent sur le fait que ce fut une guerre inutile pour la plus part, qui n'a eu lieu que pour les intérêts des riches qui étaient impliqués. C'est pourquoi il fallait souvent maintenir l'ordre: surveillance des rues, des fermes et des puits de pétrole. Seule une personne savait que les appelés n'étaient pas obligés de réaliser des interrogatoires violents, que cela revenait aux volontaires. Deux des témoins disent qu'ils ont fait leur devoir en Algérie (le responsable des anciens combattants et le porte-drapeau).*

*Mots Clés: Guerre. Sale. Inutile. Mort. Devoir. Médaille.*

*Los cuatro testimonios aparecidos en Ttipi ttapa ponen de relieve que fue una guerra inútil para la mayoría, que únicamente se hizo a causa de los intereses de los ricos implicados. Por esta razón, a menudo, había que realizar funciones de mantenimiento del orden: vigilancia de calles, granjas y pozos de petróleo. Solamente uno sabía que los soldados de reemplazo no tenían obligación de realizar interrogatorios violentos, que esas acciones correspondían a los voluntarios. Dos de los testigos dicen que en Argelia cumplieron con su deber (el jefe de los excombatientes y el abanderado).*

*Palabras Clave: Guerra. Sucia. Inútil. Muerte. Deber. Medallas.*

---

* Bidartekoborda. F-64310 Senpere.
** Aras Gorri. F-64310 Azkain.


SENPERE-AZKAINgo
gehigarria

Laurent Astigarraga, 63 urte.
Bidegurutzean sortua.
6 haurride. Laborantzan ari izana. Gerlari ohien bandera eremaile: porte drapeau.

Laurent ASTIGARRAGA

M.M.

HIRU

**Laurent Astigarraga, 63 urte**
Bidegurutzean sortua.

6 haurride. Laborantzan ari izana. Gerlari ohien bandera eremaile (porte drapeau).

Algerian pasatu ditut 24 hilabete.18 mendian eta sei Oran hirian (maintien d'ordre delakoan). Gerlaz zer pentsatzen dutan.

Neretzat debaldeko gerla bat zela. Baziren FLNekoak beren etxean zirenak eta OAS delakoak menperatu nahi zituztenak eta soldadoak horien arteko zirela.

Politikaz okupatzen diren buruzagiek bilatu balute jendearen ona eta haren errespetua ez eta bakarrik zonbaiten abantailak ez zuten hoin bertze gazte igorriko biziaren irriskatzerat adinik hoberenean. Horiek denak pasatuak dira eta paso.

**Pierrot Behastegui, 65 urte**

8 haurridetarik bigarrena. Zurgina ofizioz. Gerlari oihen zuzendaria. Nahiz eta Algeriako gerla debaldetakoa aitortu, Frantses bandera eta medaileri arras atxikia da. Bere hortan jarraitzen du duela 40 urte hauetan.

Ttipi Ttapa: Zonbat hilabete egin dituzu Algerian?

Nik hamalau hilabete pasatu ditut han. Lehenago ez ninduten igorri, famili handiko zaharrena nitzelako. Hamalau hilabete Marseilla eta inguruko portu batean eta bertze hamalau Algerian.

T.T: Norat igorri zintuzten. Nun ibili zira?

Nere denbora hasi nian Alger-tik 40km-tan eta finitu Sahara aldean, petrola putzuak zaintzen (Hassi-k-Mel, Hassi-M-Sahoud-en). Hara gan behar ginuela bertze lagunak bezala hango itzulia egin eta etxeratuko ginela; bortxaz, bortxaz, ez bainan...

T.T: Nola pasatu zen Algeriako hori?

Algeriakoa ez zen nahi bezain gustura pasatu. Gerla frango, beti kanpoan nintzen, beti operazionetan, beti arma eskuetan, beti gerlan. Behin gertatu zitzaikun bi hilabete t'erdi kanpoan kanpamendura sartu gabe. Gure zaharrak

lanak zitikan han pasatzen zirenak sinisten. Bertze behin komandoko hamar lagunetatik 6 bakarrik itzuli zitukan, haien artean kolpatuak. Suertez ez nian deusik ukan. Ez zen inorentzat oparirik, jakinzak.

Hola zen eta hola zen, nik ez nian pentsatzen itzuliko nitzela tokietarik, hobe diat garbiki erran.

T.T: Balio al zuen hoinbertze sakrifizio? Zerentzat eta norentzat?

Ezagun zukan, mutikoa, hantxe ikusten zen gerla debalde egiten ginuela, bertzentzat ari ginela, aberatsentzat, petrolarentzat. Guk alde egin eta, petrola norena da?

Hango gerlat gan gintukan bertze frantsesen laguntzeko, baina ikusita politika nora joan zen, debaldetan zen gerla. Neretzat debaldetako gerla, gana gintukan bakea muntatzera.



SENPERE-AZKAINgo

**gehigarria**

*Algeriako gerlaz lekukotasunak*

**Pierrot Behastegui, 65 urte. 8 haurridetarik bigarrena. Zurgina ofizioz. Gerlari oihen zuzendaria. Nahiz eta Algeriako gerla debaldetakoa aitortu, Frantses bandera eta medaileri arras atxikia da. Bere hortan jarraitzen du duela 40 urte hauetan.**

"Gure zaharrak lanak zitikan han pasatzen zirenak sinisten"

Debaldetako gerla, nun hobeki, nor bere etxean baino.

Bi hilabete terdi kanpamendura sartu gabe, beti kanpoan

Oran-eko hirian "maintien de l'ordre" egiten

Astigarraga, Laurent

Pierrot BEHASTEGUI

BI

Gerlan ari zirenak, gerla egiten zitekan, kasu. Gu bezala armatuak zitukan. Gainera gure.

Konpainian 150 soldadotik 25 frantses gintukan eta gure burua zaindu behar ginian.

Harkiak, ez hakien hire alde edo hire kontrakoak ziren.

T.T: Nahiz eta debaldetako gerla izan, ezaguna da zure atxikimendua Frantses banderari eta medaileri. Ez da errex konprenitzea.

Erran ziguten Algeria Frantziako hiru departamendu zirela eta Frantsesak defenditu behar zirela. Guk gure "devoir"-a egin diagu eta medaillak dituk Frantziaren aitortza bat bezala, meritu bat bezala.

## ALGERIAKO LEKUKOTASUNA

Gaurkoan André Harisgainen lekukotasuna dugu. 63 urte. Gaxintoenean sortua. Denbora gehiena Parisen pasatu du "garde républicain", gaur, Gaxintoenean bizi da bere emaztea Jeanine eta Serge semearekin.

### Nundik ibilia zira?

Gure klasa izan da azkena, 28 hilabete egin dituena. Nere aldetik 14 hilabete egin ditut Frantzian eta bertze 14 Algerian.



SENPERE-AZKAINgo

**gehigarria**

# Algeriako gerlaz lekukotasunak

**André Harisgain,** 63 urte. Gaxintoenean sortua. Denbora gehiena Parisen pasatu du «garde républicaine», gaur, Gaxintoenean bizi da bere emazte Jeanine eta Serge semearekin.

**Nundik ibilia zira?**

Gure klasa izan da azkena, 28 hilabete egin dituena. Nere aldetik 14 hilabete egin ditut Frantzian eta bertze 14 Algerian. Frantzian pasatu denboraz ez da gauz handirik errateko baina Algerian gauzak ez ziren berdin. Marsellan untzia hartu ginuen. Oran-era arribatzean, untzitik jautsi orduko ohartu ginen ez ginela gure herrian. Oran-etik Relizan herrirat joan ginen, han lau hilabete pasatu gintuen "maintien de l'ordre"; gero bertze hamar hilabete Zemmora herrixkan "pacification" deitu operazioarekin.

**Zer diozu Algeriako gerlaz?**

40 urte pasa eta gero, gerla guziak bezala, Algeriako gerla debaldekoa izan dela iduritzen zait. Ez denentzat. Hango "zango beltz haundiek" nahi zituzten berentzat atxiki hango lur hoberenak eta lurra erabiltzeko, hango jendea ahal bezain gutti pagatu. Nola ez zen ba altxatuko jendean horrelako injustizien aintzinean?

**Zer gehiago erran dezakezu?**

Nik ez dut gauza haundirik ikusi, baina bai injustizi frango. Hau gehitu nahi nuke: Nere komandanteak galdetu zidan Fallagha baten mintzarazteko bazutela nere beharra. Gehitu zuen ez nintzela lan horren egitea bortxatua. Soldadua nintzen eta ez engaiatua. Hori nork zakien soldaduetan? Ezezkoa erantzun niola bistan da. Baina zer egin behar zuen jakinaren gainean ez zen soldaduak? Gerla hunek ahalge haundia eman behar luke deneri: Lehenik Frantzian manatzen zuteneri Han gaindi ibili ziren guzieri.

Erran zahar batekin burutu nahi nuke: "Soldado zaharra kanoietarik urrun; beldurtia, ikurrinari hurbil."

ANDRÉ HARISGAIN

1959ko klasea, Uztaritzeko Herriko Etxe aitzinean, Senpereko jaun merarekin.

Kantuak zion bezala Algeriako gerlaz:

"Euskal Herria denak isilik dagozi". Mintzatu behar zuenak ere bai.

Hemen Emilme Laxague, seminario haundiko irakaslea Algeriara "rappelé" bezala deitua izan zen 1956an. Gero Baionako bikario general bilakatu zen; bere isiltasunaren saria ote?

Piarres Larzabal, Piarres Lafitte edo Charriton, JAC eta JOC-ko omopnierak bezalako batzu kenduta, Eliza ofiziala isilik egon zen. Ez zen torturarik, hilketa hotzik, bortxaketa-

Argazkia: Paris Match 369 zenbakia, 1956ko maiatzaren 5ª. Emile Laxague apez komandantea.

BI

Frantzian pasatu denboraz ez da gauz handirik errateko baina Algerian gauzak ez ziren berdin.

Marsellan untzia hartu ginuen. Oranera arribatzean, untzitik jautsi orduko ohartu ginen ez ginela gure herrian.

Oran-etik Relizan herrirat joan ginen, han lau hilabete pasatu gintuen "maintien de l'ordre"; gero bertze hamar hilabete Zemmora herrixkan "pacification" deitu operazioarekin.

**Zer diozu Algeriako gerlaz?**

40 urte pasa eta gero, gerla guziak bezala, Algeriako gerla debaldekoa izan dela iduritzen zait. Ez denentzat.

Hango "zango beltz haundiek" nahi zituzten berentzat atxiki hango lur hoberenak eta lurra erabiltzeko, hango jendea ahal bezain gutti pagatu.

Nola ez zen ba altxatuko jendean horrelako injustizien aintzinean?

**Zer gehiago erran dezakezu?**

Nik ez dut gauza haundirik ikusi, baina bai injustizi frango.

Hau gehitu nahi nuke: Nere komandantean galdetu zidan Fallagha baten mintzarazteko bazutela nere beharra. Gehitu zuen ez nintzela lan horren egitea bortxatua. Soldadua nintzen eta ez engaiatua. Hori nork zakien soldaduetan?

Ezezkoa erantzun niola bistan da. Baina zer egin behar zuen jakinaren gainean ez zen soldaduak?

Gerla hunek ahalge haundia eman behar luke deneri:

> Lehenik Frantzian manatzen zuteneri
> Han gaindi ibili ziren guzieri.

Erran zahar batekin burutu nahi nuke:

> "Soldado zaharra kanoietarik urrun; beldurtia, ikurrinari hurbil."

*Uztailaren hirua 2002 garren urtea*

## ALGERIAKO GERLA

### Lekukotasun bat


SENPERE-AZKAINgo
Gehigarria
2002ko irailak 5
Euskal Kultur Erakundearen laguntzaz egindako gehigarria

Ziburutik goraintzi

**Aljeriako Gerlaz Peio Chipiren lekukotasuna**

Peio Chipi, Abokaten Bordan sortua duela 64 urte. Kanpo erresumetan ainitz urtez lan egina, huna Algeriako Gerlaz bere lekukotasuna; liburu batena bazuen eta ainitz laburtua behar izan du.

Duela berrogoi urte, 1962'an uztailaren hiruan, Algeriak ardietsi zuen independentzia, Frantziaren aurka ereman ondotik, sasi-guda bat izigarria, hasia 1954'eko Umiasainduz eta bururatu dena 1962'ko antolamenduekin.

Zazpi urte eta zazpi ilabete iraun duten nahaskeriek, Frantziako buruzagiek deituak «Algeriako gertakariak» (événements d'Algérie), zeren gerla hitza ukatua zuten, Algeria orduan hiru departementudutan zatitua, zelakoz eta ezin onhartua zelakoz «anai guda» (guerre civile). Hola «gertakari» horietan bertze erresumek ez zuten deusik ikustekorik, zeren Frantzian zen nausi Frantzia.

Erran behar da, Frantzia estakuru ttikiarekin, sartu zela indarrez 1830'ean Algeriako erresuman, Turkoen azpi zelarik denbora hartan. Kolonikuntza gogorra ezarri orduko, Algerian bakerik ez da izan 130 urtez, han hemenka beti halako sasi-guda bat ateratzen zen. Denbora berean, frantseseri lur oberenak emanak ziren, handik aizatuta tokiko jende aedo maizenik garbituta. Bortizkeria izigarrien menean itxilduak izan dira den gutien oldartzeak.

Hogoi garren mendean sortu dira azkatasunari buruz, Algerian, hainitz alderdi, bereziki MNA eta FLN deitu batasunak. FLN delako alderdiak hartu zuen iraultzaren bidea 1954'ean, independentzia izan arte buru atxiki zion Frantziari.

«Algeriako gertakarien» denboran baziren Algerian hamar bat miliun bizitzale: bederatzi algeriano europar batentzat. Departamendu frantsesak izana gatik, Algeriano gehienek ez zituzten frantsesen ezkubide berak, gehiago dena, Algeriako aberaztasuna, ehunetarik lauetan hogoi'ta hamar europarren ezku zen: zuzengabe haundia ezin jasanezkoa. Erran behar da, hiru departamendu horiek eginak zirela 1848'an, bakarrik hango «colons» frantsesek izaiteko diputatuak, Pariseraino beren boza adiarazteko; algerianoak ez ziren frantsez ekarriak, bainan «indigènes» (zonbeit bakar geroago hautezkunduetan onhartuak izan dira), baizik 1958'an, frantsez izaiteko ezkubidea ukan dute: berantegi, zeren jadanik lau urte heietan, iraultzak bidea egina zuen eta FLN'eko gudariek, garbiki independentzia nahi zuten.

Zenbakietan sartu gabe, Frantziak Algerian bere nausitasuna jarria atxiki du, 500.000 soldado ezarriz geldi geldia tokiaren gainean, 1956'etik 1962 arte, erran nahi baitu, soldado bat 18 algerianorentzat, tokiko polizia eta «Territorial» gizon armatuak zenbakietan sartu gabe; gainerat ere eman behar litazke herriko-

mutilak, herri-zainzaleak, polizia ixila (R.G, barbouzes). Hola, Algeriarat igorriak izan dire 2.750.000 gazte beren soldadogoaren egiteko. Han ibili dira denbora heietan, hamabortz bat mila euskaldun. Hoik denak ziren deituak «les forces de l'ordre», kargu berezia zuten errepublikaren begiramena erakustea eta errespetaraztea, terorizmoa garbitzea behin betikoz.

Dakizuen bezala, guda izigarria «forces de l'ordre» delako horiek egin dute, guda zikina, ezin aitortua. Palestinaren borrokak eta Algeriako «gertakariak» berdintzuak dire, ez bakarrik borroka mailan, bainan ere kolonizazione gisan, maiz historialariek bi guduka horiek hurbildu dituzte. Historialari frantsesek diote 140.000 algeriano, nunbait han, hilak izan direla zazpi urte horietan, gainerat hartuz 27.500 soldado frantses, 5.000 europar inguruan eta 150.000 Harkis. FLN iraultzariek diote beren idaz lanetan, miliun bat baino gehiago algeriano hila izan dela, 460.000 zaurituak eta 250.000 ezinduak izan direla, zazpi urte hoietan eginak. Argitasunik ez da eginen zenbaki horien gainean, zernahi gisaz, erraten ahal da, Algeriako «gertakariek» egin dituztela berogoieko Bigarren Gerla Mundialak baino gehiago hil frantsez, lau aldiz ttikiagoko bizitzaleen artean. Odol-itxurtze hori izan da Algeriarentzat saki bat izigarria, independentzia lehen urtetan. Hoinbertze bortizkeriaren ondotik, bakean sartzea lan haundia da.

Hor dira ekarriak zonbeit ikusmolde, irakurgaietan altxatuak, Ttipa Ttaparen galdeeri ihardetsi aintzin behar direnak ikusi. Bai gure aldizkariak, nahi dituzke bildu Algerian izan diren soldado zonbiten oroitzapenak. Huna bez galdeak eta ihardespenak:

**1) Ttipi Ttapa: Bertze Senpertar ainitz bezala Algerian gaindi ibili zira. Zonbat ilabete egin zinituen eta nola pasatu zen?**

P.C.: ene adinekoek bezala, 28 ilabete egin ditut Algerian. Gan nitzen gogotik, 1958'an maiatzaren bortzean, leku ederren ikusteko, orduan jende guti Algeriako Gertakarien aurka agertzen zen, ez nitzen bate politikan sartua. Armadak azkatu nintuen 1960'ean buruilaren bortzean.

Parisetik ereman nauten, Reuilly Diderot Kasernan bertzekin elgarretatuta, han ginen 250 gazte bilduak, Frantzia guzitik ekarraziak zeren denak kasu bereziak ginen. Gure soinekoekin eta puska soil batzuekin, igorri gintuzten, zuzen zuzena, Algeriarat. Kamionez ereman gintuzten, oihu ederrekin, trein bidearen hartzeko, Lyon gararat. Han manifestaldi bat antolatua zuten ezkertiarrek, Algeriako bakea egiteko berehala: treina barnetik, gure lagun zonbitek garrasi eta orroz, armadaren aurka igorri zuten beren erra guzia; denbora berean, ama bat nigarrez ikusi nuen kaia bazterrean; itxura hits hori gorde nuen ene baitan. Treina abiatutzen Marseille hirirat heltzeko, hamar bat oren geroago. Handik laster, Athos II untzia artu ondoan, 48 orenen buruan Alger, Algeriako hiri nausia, zuri zuria agertu zen.

Zonbeit pikura egin ondoan, denak ereman gintuzten Setif hiri auzorat, Aïn Arnat herrixkarat, nun baitzen egina 3.000 soldadoen kaserna. Han, ateatu gabe


2002ko irailak 5

SENPERE-AZKAINgo

**Gehigarria**

Euskal Kultur Erakundearen laguntzaz egindako gehigarria

**Ziburutik goraintzi**

S. YARZABAL 2002-08-08

*Aljeriako Gerlaz Peio Chipiren lekukotasuna*

Peio Chipi, Abokaten Bordan sortua duela 64 urte. Kanpo erresumetan ainitz urtez lan egina, huna Algeriako Gerlaz bere lekukotasuna; liburu batena bazuen eta ainitz laburtua behar izan du.

BAT

atxiki gintuzten hetsiak, lau ilabete eta erdiz, klasak egiteko denboran. Fama txarrarekin kasernan sartuak, gogorki, larderia haundiaren pean, ilabete horiek iragan dire. Toki hartan, irakutsi gaituzte armen ibiltzen, nahi edo ez soldado birakatu gaituzte, irakutsi gaituzte hiltzen armekin edo ezku utsez, buruan sarrazi gaituzte, diziplina zela armaden indar haundiena, han ginela teroristen borrokatzeko eta bakea edatzeko Algeria guzian behar balinba zen indarrez (pacification). Han ziren ofizialek, katixima bezala irakuzten gaituzten zoin higuingarriak ziren FLN'eko Fellaghas delakoak, eta algeriano guzientzat irakuzten zuten erdainu haundiena, 50 bat izengoiti ematen ziozkaten: Bougnouls, Melons, Bicots eta bar...

Klasak bururatuak, ederki eskolatuak arte militarrean, geienek «Kommando» ikastaldiak eginak, izan ginuen baimena zortzi orenez ateatzeko. Ez ginen Setif hirizkarat baizik ateatzen ahal, ez zen bertze ateabiderik. Han ikusi behartzen nola, lau ilabetez, mutiko gotxo batzu birakatzen zituzten otso. Adin hortan, oraino haur haundi batzu ginen eta ehunetarik hamarrek, bederen, beren baitan bazuten, hazia bezala, bortizkeria gogorrenaren gaia. Lau ilabetez, zer ez da sakatzen ahal holako gazte bati buruan. Kaserna hartan ginen: neurtuak, hautatuak eta berexiak, handik ateatzean igortzeko, gure ahalen arabera, leku eta lan berezietarat.

Orduan, ikustekoa zen, gure lehen ateraldia Setif'en, zer izan zen: soineko gisa, lehoin-nabar jauntziak (tenue de léopard), ile motz motz batzuen gainean gapelu tiki bat, Rangers deitu oinetakoekin zangotan, «Bigeard's Boy» moda zen. Irakutsia gintuzten, ere, nola ibili behartzen jendearen aintzinean: bularrak hantuak, bizkar ezurra zuzen, espaldak malgu eta urhatsaren ritmoan higituz, behako zorrotza, irria sartua; egiazki, gure gazte zonbitek, Rambo iduri zuten, bertze batzuek John Wayne'n airea hartzen zuten. Jakiten ahal duzue bazterbideak ez zirela aski zabalak, holako biliarro bat eta moro batek elgar gurutzatzean, mairuak behar zuen aldatu, eta jasan bederen, gain behiko behako txar bat. Erra ikazten da eta irakusten.

Gogozkatu behar da zer gertatzen den, hiri ttiki baten 4 edo 5 karrika nausietan, azkatzen direlarik hogoi urtekoa 200 bat mutil! Norat ganen dire lasterka hiruetarik bi? Zuzen zuzena «etxe hetsi» deitu lekurat (bordela). Setif'en etxe horitarik bat zen bakarrik, armadako medikuek begiztatua, bainan ala ere eritasun gaitzak biltzen ahal ziren toki hartan, zeren nornahi onhartua zelakoz, errana zen Fellaghak ere han gaindi ikusten zirela. Osagarriarentzat, hainitz obekiagoak ziren, kamion berezietan armadak ibiltzen zituen emazte multxoak, kaserna bate-


SENPERE-AZKAINgo

**gehigarria**

Peio Chipi, argazkiaren eskuin aldean.

*«Pollita izaten zukan, igande goizetan mendiko lana eginta gu etxeratzen eta jendea berriz mezetarako bidean».*

Nun hago Piarres? Nungo erreka, mendi, bide, biderketan?

TTIPI TTAPA

izan direla zazpi urte horietan, gainerat hartuz 27.500 soldado frantses, 5.000 europar inguruan eta 150.000 Harkis. FLN iraultzariek diote beren idaz lanetan, milion bat baino gehiago algeriano hila izan dela, 460.000 zaurituak eta 250.000 ezinduak izan direla, zazpi urte horietan eginak. Argitasunik ez da eginen zenbaki horien gainean, ezin aitortuak direlakotz. Ezinukatuzada, Itsasuko oroit harrian, 101 Iparraldeko euskaldunen izenak idatziak direla. Horietarik bortz ezagunak nituen, ez nuiz gaitzeko harri horren aintzinean ibiltzen ahal, gogoz hunkitu gabe gazte horiek, gogoeta bat izan gabe heien etxekoentzat (eskerrak harri horren sortzaileari eta eraikitzaileari).

***T.T.: Frantziak ez ahal du zuen lagun batzuen bizia galdu, zuen gazteluzuna ebatsi?***

Bai lagun bat galdu nuen Setifen, ene azpian lo egiten zuen laguna: istripuz. Bertze bi ofizial ere galdu genituen, begazkin istripuz. Operazione haundi batean, gure diviziotaak, izan zituen, egun berean, 29 hil eta 114 zauritu. Horiek denek, izan ditazte ezin ahantzizko ehorzketak.

***T.T.: Zer gehiago zinuke erraiteko?***

Hola, nahikoa, aski da. Bertzek ere behar dute izan hitza ! Hau lekukotasun bat da, iduriz izaten ahal litake, Algerian ibili diren bezenbat lekukotasun.

*Peio Chipi*

CRÉDIT AGRICOLE
SENPERE
✆ 0559541057
DONIBANE LOHITZUNE
✆ 0559263702 - 0559261261
ZURE ETXEBIZITZA EDO AUTOA ASURATZEKO
PACIFICA

LAU

tik bertzerat, geiago dena, aise merkeago zen hango itzulia (bordel militarrak deitzen ziren). Setif'eko «etxe hetsian» baziren 8 emazte, denak «indigènes» delako heitarik. Gora behera, 3 orenez, beren lana egina zuten, 4 ilabeteren buruan bertze olde berri bat jautsiko zen. Anartean, egun guziz, soldadoak han ibiltzen ziren; behar da itxuratu zer beharrak eta zer den 3.000 gizoneko kaserna bat!

Hango 10'etarik 9 gaztek, ez zuten egiazko harremanik izanik emazte batekin, soldadokoat gan aintzin. Bainan erran behar da 28 ilabetez, gure solazgai bereziak zirela emazteen inguruan. Denbora hartan, duela bez 44 urte orai, ez zen egun bezala, oren erdi baten buruko itzulipurdikatzen nezkatxa bat: ez zen orduan pildorrarik, abortua legez zigortua zen, ezagutuak ziren han hemenka «bastarta» aski, nezkatxa errespetatu behar zen ezkondu arte. Etxe hetsietaz ez ginen jakindun nork zerbait erran zigun? Gainera norbait izateko "bordel" eban ibili behar zen.

Behar litake ere mintzatu emazte problema horietaz, zeren «Algeriako gertakariak» ziren bai hilketa izigarriak, oinhaze ikaragarriak, miseria harrigarri bat; bainan, Algerian, baziren han nunbit, 5 miliun gizon eta 5 miliun emazte, gainerat emaiten badire 500.000 mutil gazte, hogoi urtekoak, zerbait gertatuko da. Orduan, izan da emazte bortxatze ainitz, buruzagien jakinaren gainean, egintza horiek ez dire ere aipatuak, edo ukatuak dire, ixilduak. Gauza bera «etxe hetsietako» emazterentzat: nundik heldu ziren (zonbat hogoi urtez azpikoak)? Nok han emanak zituen eta nok biltzen zituen irabaziak?Herrietan, gauaz, Fellaghak sartzen zaizkoten etxean, hek ere hazi behar ziren, bere haurren gainetik, eta itxil ixila egon behar; egunaz, aldiz, soldado frantsesak, han berean bazterren miatzen, den gutieneko arraztoarekin, «douar» (hameau) osoeri su ematen. Ez gira hemen hasiko sail hortan sartzen, bainan erran behar da, ederrak emazte ainitzek ikusiak dituztela «Algeriako gertakari» urtetan.

Setif'eko kasernatik Algeria guziarat igorri izan ginen, jakin gabe bat bertzeak norat aldatuak ziren. Han galdu nintuen, Parisen bildu lagunak. Alger hiritik 30 km'tarat igorria izan nintzen, ekialderat, Alma Marine itsaso bazterrerat, ontasun haundi baten zaintzerat, bertze hogoi bat lagun berrirekin, Kolonel Kester'ren ontasuna. Holako bertze bortz etxalderen jabea omen zen, bere oficial lanaren bertzalde. Ez uste izan Algeriako europar'tar guziak holako etxaldeen jabe zirela, denak «colons» aberats hoitarik zirela! Gehienak jende txoilak ziren eta Algeria utzi dutelarik beren aberria utzi dute. Ez ginen sobera gaizki toki hartan, urte bat hor egon ginen, ala ere baginuen nahikoa, egun guziz hiru edo lau orenez, ontazunaren zaintzen egotea, nardatzen ginen, itsuzki. Zer denbora galtzea! Gure

inguruan algeriano ainitz, beren aintzurrekin, egun osoak aritzen ziren jorran, iduzki min baten azpian, idabazten zuten 300 libera zahar egunean (0,45 euro), jornal horrekin bazuten, doi doia, kilo bateko ogia erosteko saria. Nola hori jasan, etxean hamar bat haur badielarik hazteko?

Soldado xeheenak, bazuen jornal bat: 28 libera zahar egunean (0,04 euro), behar gintuen hiru egun jornal, garagardo baten edateko. Leku beroak dire han, ura ezin edana zen, eritasun haundiak biltzen ahal ziren. Ahal zutenek etxekoeri galdetzen zioten diru zerbit, erran nahi baita, hogoi urtetan etxekoen gain ginela: hori zaila zen. Denbora berean, gurekin baziren, estadoko kargudunak (fonctionnaires), soldadoko aintzineko jornala unkitzen zutenak. Jakitenahal duzue, 0,04 euro unkitzen zutenak, ez zirela ikusten «bordeletan» gaindi! Nun zen berdintasuna? Gauza baten beira egoki ginen han, Algeriaz eta bertzetaz futituz: etxerat laster sartzea, herria berriz ikustea, zonbitek emazte gaia atxematea eta etxekoak bezarkatzea, han egon dienek bakarrik dakite, zenbat zen hori gutan baitaratua.

Ahantzi gabe, behar da erran, 18 garren ilabetetik goiti, unkitzen ginuela 0,39 euro egunean, ez ginen horekin urrun gaten ahal, beti aita amen sosaren beira egoten ginen. Bertze emaitza ustel bat ere izan dugu, gure denbora guzian: zigarreta ausarki emaiten gintuzten eta urririk, izena zuten «troupes». Ez nuen sekulan erretua harat gan aintzin, han berantetsia, nardatua, bertzek bezala egiteko, soldadoko 21 garren ilabetean erretzaile birakatu nintzen. Gero, soldadokoa bururatuta, erretzaile gelditu naiz 20 urtez, bainan armadak ez nauzkien geiago zigarretak urririk ekartzen, erosi behar ziren dakizuen lekuetan, dakizuen zergak emanez estadoari. Niok ez gaitu erran osasunarentzat pozoina zela erretzea, bihotzeko eta zaingorrietako eritasunak izanen gintuela, sekulako min bizi mota izaiten ahal gintuela! Hoinbertze gure adineko, Algerian soldado izanak, edo bertze nunbit, erritasun horietaz hiltzen dira, egun guziz, zeren soldado denboran eman zigarretak erretzen hasi ziren! Nik berak berrikitan galdu dut soldadoko laguna bat, 28 ilabete elgarrekin eginak gintuen, bularretako min biziak ereman du, elgarrekin batean erretzen hasiak ginen. Estadoak behar luke epaitua izan, bainan nor menturatuko da, auzitegietan salaketa ekartzea? Gizon baten salaketa, edozoin auzitegiren aintzinean, ez litake berehala onartua. Bainan elkarte bat, izan litake azkarrago, eta hobekiago aditua.

1959'an uztailaren ondarrean, gure «peloton» guzia aldatutzen Tebessa eskualderat. Denetarat 30 bat militar ginen, ofizialak eta denak zenbatuz. Han zaindu behar ginuen «Ligne Maurice» delako muga puska bat, Tunisia eta Algeriaren artean. «Ligne Maurice» delakoa ekarria zen ezin zeharkatuzko muga bezala. Jakiten ahal duzue, nahi zutelarik, Fellaghak handik pasatzen zirela, eta gure gatik ez zutela izitzerik. Zangoa eman ginuelarik Algerian eta bederen 25 ilabetez, ez ginen deuzen beldur, uste ginuen ez ginela hilkorrak, bainan azken bizpahiru ilabetetan izituak ginen eta ez ginuen geiago nahi ateatu, hortako Fellaghak gure gatik beren bidean jarraikitzen baziren, bakean gain ziren.

Tebessa'n emazte solazak itxildu ziren, baginuen aski eta oraino gehiago. Baginuen Jainko bat: azkatasunaren Jainkoa, izena zuen «la Quille». Ezin sinetsia



6 Lurra 2002ko abendua

**Algeriako gerlari buruz Peio Chipi senpertarraren lekukotasuna**

Zortzi urteko gerlan hainbat bortizkeri egin zirela onartzen du

**Duela berrogoi urte, 1962ko uztailaren 3an, Algeriak ardietsi zuen independentzia, Frantziaren aurka ereman ondotik, sasi-guda bat izigarria, hasia 1954ko Umiasainduz eta bururatu dena 1962ko antolamenduekin.**

**Zazpi urte eta zazpi hilabete iraun duten nahaskeriek, Frantziako buruzagiek deituak «Algeriako gertakariak», zeren gerla hitza ukatua zuten, Algeria orduan zelakoz hiru departemendutan zatitua, eta ezin onhartua zelakoz «anai guda» (guerre civile). Hola «gertakari» horietan bertze erresumek ez zuten deusik ikustekorik, zeren Frantzian zen nagusi Frantzia.**

**Erran behar da, Frantzia estakuru ttikiarekin, sartu zela indarrez 1830ean Algeriako erresuman, Turkoen azpi zelarik denbora hartan. Kolonikuntza gogorra ezarri orduko, Algerian bakerik ez da izan 130 urtez, han hemenka beti halako sasi-guda bat ateratzen zen. Denbora berean, frantseseri lur hoberenak emanak ziren, handik azkatuta tokiko jendea edo maizenik garbituta. Bortizkeria izigarrien menean itxilduak izan dira den gutien oldartzeak.**

**Hogoi garren mendean sortu dira askatasunari buruz, Algerian, ainitz alderdi, bereziki MNA eta FLN deitu batasunak. FLN delako alderdiak hartu zuen iraultzaren bidea 1954ean, izan arte independentzia buru atxiki zion Frantziari.**

zen zer oihuak egiten gintuen, erranez «la Quille Bordel», deusik ez duten erran nahiko hitzak, elgarretatuta, bainan, hoi zen denbora berean: juramendu bat bezala, errabiako oihua, armadaren aurka egina zen oihua, azkatasunaren oihua. Lehen ilabetetan, aditzen nintuelarik zaharragokoak, oihu horren egiten, arrunt zozoak atxemaiten nintuen; bainan ene itzulia etorri zelarik, urte bat geroago, neurtu nuen oihu horren gibelean zer jasarraldia zen, zer hasarrea gordetzen zuen, zer othoitza zen. Han ibili diren geienek beren girla bazuten, eta oska bat ilabete guziz egiten zioten. Geienak beren girla lepoan emana gan dire; hoinun ikusten dire, gure adineko gizonen etxetan zonbit girla, agerian emanak: zerbit erran nahi du bai horrek.

**2) T.T.: Gaur, 40 urteren buruan, zer pentsatzen duzu Algeriako Gerlaz?**

Erran bezala gure soldadoko denboran ez zen gerlarik, bakarrik gertakariak ziren. Berrikitan du Frantziak, duela urtetsu bat, onhartu gerla zela. Zer pentsatzen dutan? Deusik onik, ez da ohore haundirik frantsez erresumarentzat ez eta ere han ibili direntzat. Ene iduriz ez du kanorerik, itxurarik bandera eta girgileria guziak aintzinean, agertzea.

Garbiki ikusi behar da, Frantziak ez duela gerla bat idabazi 130 urte hautan: 1870'ean, Napoléon bigarrenak, Sedan eskualdean, gerla galdu zuen; 1914-18'eko gerla galdua ginuen, amerikanoak eta inglesak ez baliez etorri laguntzerat; 1940-45'eko gerla gauza bera; Indochinako gerla galdua; Algeriako gerla galdua. Ez dugu burrunba haundirik egitekorik eta ez parte hartzerik ere: Irakeko gerlan, Kosovoko gerlan, Afganistango gerlan. Erresuma hoietan guzietan miseria izigarriak utziak izanak die. Bakea behar dugu, zerga gutiago eta lana denentzat.

Algerian Frantziak gerla zikina egin du (ba ote da gerla garbirik?); bainan Algeria utzi duelarik ikaragarria egin du: 200.000 bat Harkis Algerian utzi ditu, armak kendu ondoan, badakigu nola txehatuak izan diren gero; bertzalde, Evianeko antolamenduetan errana zen, Tunisiako eta Marokako mugak, hetsiak atxikiak izanen zirela, Gobernamendu bat hautatu arte, bainan armada frantsesak, muga horiek ideki ditu berehala, jakinaren gainean zer gertatuko zen. Egungo egunean, bakerik ez balinbada Algerian, azken egintza horren ondorioa da: zeren, Boumedienne algeriano armaden burutzagia, ez zen Algeriaren buru emanen, eta ez zuen hogoi'ta hamar urtez, diktadura batek iraunen.

**3) T.T.: Frantziak ez ahal du zuen lagun batzuen bizia galdu, zuen gaztetusuna ebatsi?**

Bai lagun bat galdu nuen Setif'en, ene azpian lo egiten zuen laguna, Setif berekoa zen, judua zen, Atlani deitua, iztripuz gantzen. Armekin jostetan hari ziren, jakin gabe arma bat kargatua zela, tiroak aldez alde pasatu zuen, biotzaren heinean, nitaz 3 metretan. Egiazki, haren etxerat gan ginalarik, azken aldi batez gure lagunaren agurtzerat, etxekoeri doluminen eskaintzerat, ezin jasana zen: ama lurrean kurkoidua bezala zagon, orroz nigarrez, matelak zarrapoz odoletan emanak, erranez «ene semea ebatsi naute», gelditu gabe hitz hoik heldu zaizkon. Maiz orroitzen naiz mutiko hartaz, maiz othoitz ttiki bat egiten dut harentzat.

Bertze bi oficial ere galdu gintuen iztripuz, hegazkin Piper deituarekin zugaitz ondo batean sartu ziren, maniobretan hari zirelarik. Beti lazgarria da ikustea ezagutu ditugun gizonak hola gaten, izan dezatela betiko bakea. Gelditzen direnak, etxekoak dire egiazki penagarriak, eta gu haurrek gauza guti egiten ahal ginuen kontsolatzeko!

Algeriako soldadokoa egiten zuten hil geienak, iztripuz izan behar dire. Horren gainean ez da argitasunik, eta ez gaituzte armadako buruzagiek argituko, zeren ainitz iztripu izaitea armada batean, zerbit erran nahi du.

Ez dut algeriano edo bertzerik hil behar izan. Beharrik, zeren ez nuen ene bizi guzia aski izanen urrikaltzeko. Hil behar izan dutenek, zeren aintzinerat agertu zaikote Fellagha bat armatua, hoi gerlako egintza da, bainan hil dutenek hiltzeko, maiz torturaren azpian, auzitegietan behar lukete salatuak izan.

Tortura bai ote zen? Oraino duda utzia da izigarrikeria horren gainean. Han ibili diren hamarretarik bederatzik, badakite tortura hedatua zela Algeria guzian, leku beretziak baziela lan txar horren egiteko, tortura egin duten gizon gehienean izenak ezagutuak direla, duda ttikiarekin algeriano bat garbitua zela. Holako egintzetan aritu direnek, ez dute presondegia baizik meretxi.

Hitz batzu bi gizonez erran behar ditut. Lehena, gure Capitaina L., «Peloton» delakoa manatzen zuena, ikusi baikitut ofizial ustel asko, Capitain hau zen gizon zuzena, errienta zen armadan sartu aintzinean. Frantziak izan balitu Algerian, holako berrehun buruzagi, hango gerlak bertze itxura bat hartuko zuen. Bigarrena, apez gai bat, urtetsu bat egon dena gurekin soldado, hainitz egin du gure artean laguntasunaren azkartzeko, bainan ere, Algerianoak errespetatzeko. Bi gizon haukiek, bakotxak bere aldetik, egin dute ez girela erori bortizkerian.

Bai lilluratasuna han galdu dugu. Handik lekora, ez nuen gizonaren gainean sinesten, zakur bat zautan jarraikiagoa. Hogoi urtetan, gan aintzinean, biziari irriz gan ginen, sanoak ginen; gibelakoan aldiz, goibeldua bezala izuli nintzen. Bai han utsi dugu gure gaztetasuna.

### 4) Zer gehiago zinuke erraiteko?

Hainitz, bainan bertzek ere behar dute hitza. Orai orroitzen naiz, hitz bat baginuen erraiteko «norbait»: un «Gus». Nundik eta nok asmatu zuen hitz hori? Orduan bertze «Gus» bati emaiten diot hitza.

*Peio CHIPI*